



«Mamu ilunak» atzean utzita finalean da berriro ere Abel Barriola

LEITZA ▶ Olaizolari irabazita, Lau t'erdiko txapela eskuratzeko aukera du Martinez de Irujoren aurka ▶ 7



«Seguru» jokatu zuen pilotari leitzarrek Tolosako Beotibar pilotalekuan, herenegun. NEREA LIZARTZA



HITZA

Kultura eta artea bat eginik Kultur Trukean

IBARRA ▶ Ostiralera arte ikusgai izango da bost artisten erakusketa, Kultur Etxean, Kultur Truke Hamabostaldiaren baitan. Helburua Ibarrek Saharako Chitla eta Ekuadorko Ibarra herriekin duen senidetasuna sustatzea da. Argazkian, Hector Luna margolariaren labar-pinturazko lanetako bat. HITZA ▶ 4-5

ANOETA ▶

Udalak telebistako seinale errepikagailu digitala jarriko du

Egungo errepikagailu analogikoak ez du behar bezala funtzionatzen ▶ 6

TOLOSA ▶

Mikrokredituen finantziazio akordioa sinatu dute

Tolosaldea Garatzenek eta La Caixako Gizarte Ekintzak egin zuten atzo ▶ 2



Akordioa sinatzen. E. EZEIZA

EKONOMIA ▶

Mikrokredituen finantziario akordioa

La Caixako Gizarte Ekintzak eta Tolosaldea Garatzen-ek hitzarmen bat sinatu zuten atzo, formula hau zabaltzeko

ESTI EZEIZA

Mikrokredituen finantzaketarako hitzarmena sinatu zuten atzo, La Caixako Gizarte Ekintzak eta Tolosaldea Garatzen-ek. Sinaketan parte hartu zuten Tolosaldea Garatzeneko gerentea den Joxe Luis Urdangarinek, eta Gipuzkoako La Caixako negozio arloko zuzendaria den Dorleta Ugartek. Akordio honi esker, lan arazok dituzten pertsonen laguntza bat izango dute proiektu berriak eratzeko garaian.

Orain arte, La Caixak Euskal Herrian 246.000 eurotik gorako 22 mikrokreditu eman ditu. Bestalde, eskualdeko garape-



Atzo goizean sinatu zuten akordioa, udalebean. E. EZEIZA

nerako erakundearen helburu nagusietako bat lanpostuak sortzea da. Hau ahalbidetzeko, sail berezi bat du, non enpresa berriak sortzen laguntzak ematen dituzten. Urdangarinen esanetan, «joan den urtean 175 ekintzaile jarri ziren berriekin harremanetan». Gaineratu zuten ere, argi dutela zein den ajentziaren lana. Horregatik, nahiz eta berriak ezin dituzten ekintzaileak sortu, hauen lana leundu dezakete. Hau, tutoretza tekniko eta dirulaguntza bidez egiten dute.

Mikrokredituen formula orain arte, herrialde txirioetan garatu dute batik bat. Baina La Caixakoen ustetan, «Tolosaldean ere abantaila asko eskaini ditzakete». Ahularen alde egiten duen metodo indartsua da mikrokredituenak. Gainera, La Caixakoei dagokionean, hauek, gainontzeko maileguak bezala definituta daude, «normalizazio honek integrazioa ahalbidetzen duelarik». Tolosaldea Garatzeneko eman dako datuen arabera 2005ean 37 mikroenpresa sortu ziren, eta ziurrenik, aurten, gehiago izango dira.

MERKATARITZA ▶

600 eta 300 eurotako erosketak dohainik

Igarondo Tolosako Merkatarien elkarteak erosketatxeak zozketatuko ditu

ERREDAKZIOA

Igarondo Tolosako Merkatarien elkarteak promozio berri bat jarri du martxan. Tolosako merkataritza bultzatzeko helburuarekin hainbat jarduera gauzatzeko ari da elkarteak. Egitasmo berri honekin, elkarteko denden bezeroen artean 600 eta 300 eurotako erosketatxeak zozketatuko dituzte.

Zozketan parte hartu ahal izateko ondorengo baldintzak bete beharko dira: 2006ko azaroaren 23an hasi eta abenduaren 23ra bitartean, elkarteko kide diren establezimenduek bere bezeroei txartel bana emango diete erosketak egiten duten bakoitzeari. Hala, bezeroak, bere izena, herria eta telefonoa idatzi beharko ditu txartelean eta ondoren, dendan aurkituko duen postontzian utzi. Abendu amaieran, zozketan sartuko diren txartel guztiak bilduko dituzte. Abenduaren 29an sarien zozketa egingo dute, erosketatxekeena hain zuzen ere. Honetarako, bildutako txartelen artean bi aukeratuko dituzte, eta sarien irabazleei telefonoz deituko diete elkartekoek berria emateko. Pertsona hauek 600 eta 300 euroko erosketatxeak, hurrenez hurren, datorren urteko urtarilaren bosta baino lehen gastatu ahal izango dituzte berriak aukeratutako dendetan.

KIROLAK ▶

Gipuzkoako 3. Mailako Xake Txapelketan Iñaki Etxeberria garaile

Lehiaketako azken txanda larunbatean jokatu zen Tolosako Xake Elkartearen

ERREDAKZIOA

Pasa den larunbatean Gipuzkoako Hirugarren Mailako Txapelketako azken txanda jokatu zen Tolosako Xake elkartearen. Jardunaldi gogor baten ondoren, podiuma honela geratu

zen: Iñaki Etxeberria tolosarra txapeldun, eta Juanjo Villena eta Iker Rezola, biak ala biak Villabonakoak, bigarren eta hirugarren, hurrenez hurren.

Aurreko asteko emaitzen ondoren Iñaki Etxeberria igoera postuetako bat dagoeneko lor-

tuta zuten arren, ikusmin handia zegoen geratzen ziren beste biak nork lortuko zituen jakiteko. Horrela, lehen hiru mahaietan lau jokalarik zeuden aukerakin: Iker Rezola, Juanjo Villena, Aitor Alkorta eta Xabier Corredera. Rezolak Etxeberria zuten aurrean eta badaezpada astiro-astiro jokatu zuten, besteek zer egin zain. Ez horrela Correderek. Lehen jokaliditiki partida ahalik eta azkarren bukatzera ateratu zen. Ondotera zitzaion, bera izan baitzen irabazten lehena. Alkorta eta Villenak besteek zer egiten zuten alde batera utzi eta beraien partida jokatu zuten. Partida zaila izan zen, hala,

esperientzia handiagoa izateaz baliatu zen Villena, eta azkenik, irabazi egin zuen. Horrela, Villenak beste igoera postuetako bat lortu zuen.

Gainontzeko partidak ere amaitzen joan ziren eta azkenean Rezola eta Etxeberria geratu ziren bakarrik. Etxeberria, txapelketa osoan erakutsitako maisutasunez, Rezolari aurre hartzen joan zen piskanaka eta posizio okerragoan zegoela ikusita Rezolak etsi egin zuen. Rezolaren zorionerako, ordea, eguneko emaitzek desberdinketa onena berari ematen zioten eta horri esker geratzen zen igoera postua eskuratu ahal izan zuen.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- behean
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-mail: enio@inmoenio.com
www.inmoenio.com

Anoeta. 3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Dena kanpoaldera. Bizitzeko jartzeko moduan.

Anoeta. Duela gutxi erakuntzan duplexa salgai. Garaje ibxia aukeran. Oso egoera ona.

Berrobi. Estilo rustikoan (aldizkarietan bezala!). 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela.

Berrobi. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta bi trasteleku. Igogailua jartzeko proiektuarekin.

Villabona. Kale Berria. Eraikuntza berria. Pisu altua. 100 m². Garaje ibxiarekin.

Ibarra. San Inazio. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Bizitzera sartzeko moduan.

Ibarra. Julian Gayarre. 2 logela, sukaldea, sala eta bainugela. Berokuntzarekin. Ezin hobeto. 239.805 euro.

Irura. Etxezarreta, 3 logela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Garajea aukeran.

Irura. Kale nagusia. 2 logela, sukaldea, sala eta bainugela.

Leaburu bidean. bi solairuetan banaturiko 600 m²ko pabiloia alokairuan, 2.500 m²ko zelaiarekin.

Legorreta. Trasteleku salmentan. Bizikleta edo motorrak gordetzeko egokia.

Legorreta. 2 logela, sukaldea, egongela eta bainugela dituen pisu polita salgai. Berritua. Dena kanpoaldera. 135.230 euro.

Tolosa. Berazubi. Igogailu proiektua onartuta.

Tolosa. Eraikuntza berri hainbat etxebizitza salgai. 2, 3 eta 4 logela aukeran. Garajeekin.

Tolosa. Beotibar. 36 m². Altua, 150.000 euro.

Tolosa. Zumalakarregi. 92m². 3 logela, 2 bainugela. Guztiz

berritua eta estreinatzeko. Garajearekin.

Tolosa. La Estrella. Etxebizitza salgai oso egoera onean. Igogailu eta garajearekin.

Tolosa. Bi logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Berokuntzarekin. Ezin hobeto. 239.805 euro.

Tolosa. Isaac Lopez Mendizabal, lau logela. Igogailua. Garajea. Egoera onean.

Amezketak, Berastegi, Hernialde eta Ibarra. Hainbat etxe bifamiliar eta atxiki, eraikuntza berrikoak eta bigarren eskukoak.

24. NAZIOARTEKO TXOTXONGILO JAIALDIA ▶

Bost ikuskizun desberdin herriko lau gunetan ikusgai, jaialdiko gaurko egitarauan

Ekuadorko, Argentinako, Kolonbiako, Mexikoko eta Euskal Herriko taldeek eskainiko dituzte ikuskizunak, haurrentzat nahiz helduentzat zuzenduak



Euskal Herriko Pro Ismo Cero taldearen *Quizas el bospue* estreinaldiko une bat, atzo, Leidorren. ESTI EZEIZA

IÑIGO TERRADILLOS

24. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiak aurrera darrai. Atzokoan, 6 izan ziren taula gainean ikusgai izan ziren antzezlanak. Horietatik, bost haurrei zuzendurikoak, eta bestea helduentzat. Gaurkoan, 5 antzezlan taularatuko dituzte Tolosako lau gunetan; hain zuzen ere, Ekuadorko, Argentinako, Kolonbiako, Mexikoko eta Euskal Herriko taldeak ariko dira.

LEIDOR ARETOA

12:00etan, 15:00etan eta 18:30ean. *La maleta de la abuela Enriqueta* antzezlanarekin etorriko da Ekuadorko La Espada de Madera taldea. Familiarteko saio honek 50 minutuko iraupena du. Patricio Estrella da zuzendaria eta Ana Escobar eszenografiaren arduraduna. Buruan hainbeste istorio dituen Enriqueta amonak istorioa muntatu eta desmuntatu egiten du, atzetik aurrera edo baten hasiera beste

baten amaierarekin kontaktzen digu. Txotxongilolari trebatuen taldea da, ibilbide luzekoa, nazio eta nazioarte mailan eskenatoki desberdinak konpartitzera eraman dituena. Puerto Ricon, El Salvadorren, Ameriketako Estatu Batuetan, Espainian eta Costa Rican txotxongilo jaialdi ospetsutan izandako partaidetza nabarmentzekoak dira.

CASINOA

11:00etan, 15:00etan eta 18:00etan. Valenziako Los Duendes taldeak *El patito feo* antzezlan eskainiko du. Haurrei zuzenduriko saioa da, eta 50 minutuko iraupena du. Zuzendaria, Alberto Cebreiro da. Duela 37 urte jaio zen taldea Argentinan, eta 21 aldiz etorri dira Tolosara emanaldiak eskaintzera. Espainian, Suedian, Suitzan, Errumanian, Frantziako, Portugalen eta Mexikon eskaini dituzte euren lanak. hainbat emanaldi eskaini dituzte. *El patito feo* antzezlanean

ondorengo istoria kontatuko dute: Guillek bere urtebetze egunean ahate txo bat jasotzen du opari gisa, eta berarekin Ahate Itsusiaren ipuina kontatzen saiatuko da; baina, ahate txoak nahiago du arrisku eta fantasiazko beste abentura batzuetako heroia izatea. Zailtasunak agertzen zaizkion arren, azkenik bere ahaleginek Andersenen ipuin ospetsuaren bertsio oso berezira eramango dute; bertan, Los Duendesekoek desberdina izateari buruz zerbait esan nahi dute.

KULTUR ETXEA

10:30etan, 15:00etan eta 17:00etan. *De Sombras y Sombrillas* lana eskainiko du Kolonbiako Hilos Magicos taldeak. Haurrentzako saioa da, eta ordubeteko iraupena du. M. Teresa Lopez da taldeko zuzendaria. Hamarnaka pertsonailetan banatutako pertsona bakarreko antzeppen teknikekin, itzalen antzerkia, moztorak, maroteak eta beste batzuk

eszenan sartzen dira. Esopo Javier Morales, publizista hasi berri baten gora-beherak azaltzen dira kasu honetan; berak iragarki komertzialen eta bere izenkide grekoaren fabulen artean paralelismo bat ezartzen du, antzeko egiturak baitituzte. Aurretik landutako mezu batzuen bidez, adibideen bidez besteak konbentzitzea da helburua; kasu honetan Morales publizistak enpresari handi bat konbentzitu behar du eta bere eguzkitakoak saltzera bideratutako mezuak erabiltzen dira. Kontsumo gizarteari eginko fartsa kritikorekin gozatu ahal da lan honekin.

FERIALEKUA

11:00etan eta 15:00etan. *Pinotxo* antzezlan eskainiko du Bihar Txotxongilo talde euskaldunak. Haurrentzako ikuskizuna da, eta 55 minutuko iraupena du. 1979an hasi zen talde hau txotxongiloen antzerkian lanean. Basauriko Antzerki Eskolako sormenean parte hartu ondoren, bertan antzer-

kiko alderdi desberdinen eza-gutzak ikasi zituen. 1972tik antzerki independente deiturikoren kide izatera pasa zen. Orduetik gehien deituriko talde-tako bat da, eta horrela frogatu dute egindako 4.000 baino antzeppen gehiagok eta estreinatutako 25 txotxongilo muntaiek, guztiak estetika atsegin batekin eta literatura klasiko-tik, euskal mitologiatik ateratakoak edo ingurumenarekin erlazionaturikoak.

20:30ean eta 22:30ean. Mexikoko Emmanuel Marquez taldearen *El caso mas dificil* lana. Duela 10 urtetik hona Txotxongilo Antzerkiaren azterketa eta dramaturgia berriari laguntzea helburu bezala dituen antzerki konpainia baten sendotzean lan egin du Emmanuel Marquezek. Konpainia honek egun bere errepertorioan muntaia batzuk ditu eta horien artean ondorengoak nabarmentzen dira: *Mozart txikia*, *Te-klak eta trapuak*, *Bizitza pisura*, *Fausto*, *deabruaren istorio* bat eta *kasurik zailena*. Azken hau da, hain zuzen, gaur eskainiko dutena; detektibeaz izatera jolasten duen mutiko baten abentura hunkigarria eta bere panpinaren eta beste txotxongiloen laguntzarekin bere bizitza laburreko kasurik zailenari aurre egingo dio; bere gurasonen arteko arazoa konpontzeari, hau da, aita eta amaren banaketari eta bere familiaren desegiteari.

ARANBURU JAUREGIA

17:00-20:00. *Iberiarra leihoa* erakusketa dago ikusgai.

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldariak behar dira ospitaleetan eta ikastebeetan.
943 31 37 82.

Gidariak behar dira Erakunde Publikoetan.
943 31 37 82.

Administrazio langileak behar dira Anoetan, Errenterian, Irunen eta Hernanin. Telefono zenbakia: 943 31 37 82.

Argi eta egoki idazteko, oinarritzko tresna

ESTILO LIBURUA

ZURE LIBURU DENDAN
25 €

ESTILO LIBURUA

Harpidedunentzako eskaintza berezia: 20 €

Eskariak egiteko
Tel.: 943 30 43 45
harpidetza@berria.info

Aukera ezazu, BIZI EUSKARAZ **berria**

IBARRA ▶ KULTUR TRUKE HAMABOSTALDIA

Artea eta kultura batzen direnean

Bost artista, bost estilo, bost ideia; helburu bakarra: kulturantzitasuna

MADDI SOROA

Ibarrak Ekuadorko Ibarra eta Saharako Chitla herriekin duen sendetasuna sustatzeko asmoz, Kultur Truke Hamabostaldia bost zentzua den artean Ibarra Kultur Etxean. Inagurazio egunetik abenduaren 1era arte, ordea, erakusketak garrantzitsu batek hartu du toki.

Bost pertsona, bost lan, bost estilo, bost ideia. Guztiak ezberdinak baina guztiak helburu berarekin eginak. Artea abiapuntu hartuta, kulturantzitasuna izan dute bide eta helburuak Marce Tena (Ibarra), Txiki Orbegozo (Tolosa), Gonzalo Perez (Ekuador), Juan Eladio (Ekuador) eta Hector Luna (Ekuador) arteak.

Berriekin lanak ikusgai dira Kultur Etxean 10:30etik 13:00etara eta 15:30etik 21:00etara abenduaren 1era arte.



Gonzalo Perez, Ekuadorko Andetako indigenen trajea. HTZA

GONZALO PEREZ ▶ ERAKUSKETALARIA

«Oso zaila da beste herrialdeetan bideak irekitzea»

Gonzalo Perezek (Ekuador, 1971) Ekuadorko Andetako artzaintza ikurraren erakusketara, musika, jantziak eta folklorea.

Zer derituzo Kultur Truke Hamabostaldian buruz? Ibarrako Udalaren ekimena polita iruditzen zait, kultura ezberdinetara gerturatu garelako. Guretzat berria da horrelako integratio ekitaldietan parte hartzea. Oso zaila da beste herrialdeetan bideak irekitzea etemu ezberdinetan, eta horrelako ekintzek bidea errazten dute herriartarak azteritarrakin bitzitzen ohitzeak.

Zer jarri duzu ikusgai? Ekuadorko hirurona natural ditu, kosta, mendia eta ekialdea. Ni mendialdetik natorrenez, kultura indigeneko era-



Gonzalo Perez, HTZA
kusgaiak ekarri ditut, beraiak egindakoak. Pilahuin eta Otavalo kulturako musika tresnak jantziak etab. ◀



Marce Tena, Koloreen mundaurekin jolastea gustuko du Tenak, espiral gorri honetan, esaterako. HTZA



Kultura ezberdinetako instrumentuak daude. HTZA

Juan Eladio, Eladiore koadroetako bat. HTZA



Txiki Orbegozo, Kultura ezberdinetako pertsonak marraztea du gustuko Orbegozok. HTZA

MARCE TENA ▶ PINTOREA

«Nire obretan koloreen mundaurekin jolastea gustutzen zait»

Txikiatik pintatu izan du Marce Tenak (Donostia, 1972) oso gustuko baitu pintatzea. Batez ere koloreen mundaurekin jolastea gustutzen zaio. Eskualdeko hainbat tokitan erakusketak egin izan ditu.

Zer iruditzen horrelako ekitaldi batean parte hartzea? Oso ideia ona iruditzen zait, oso polita da kultura ezberdinetako jendea bildu eta bakotzak duen espresazio modua espagiatzea.

Lehenengo aldia da zure lana herrian erakusten duzuna. Ilusio handia egin diti, etxean bezala sentitu bainaz. Kontuan hartzen zaituzela ohartzeki ere poza ematen du. Bestalde, horrelako ekintzek jende gehiago ezagutzeko eta atak zabaltzeko aukera ematen dizula uste dut. Bultzada ere ematen diti horrelako proiektuekin aurrera jarraitzeko eta lanean segitzeko.

Kolore biziko lanak dira zureak.

Koloreen mundaurekin jolastea gustutzen zait. Espiral gorri-urdin koadroak, esaterako, sentimendua bat azaltzen du bitzitzen zehar izaten dugun azalarazio une horietako bat. Erakusketan jarri ditudan koadroak lehiaketetarako dira, oso deigarriak. Hala ere, tematika abstraktoak ere gustuko ditut.

Zure helburua pinturaz goaztea dela azaldu izan duzu. Pintatzea txikiatik izan dudun ezinegon izan da eta heldutuz joan naizen heinean garrantzitsu izan da. Gustuko dut pintatzea, koloreez disfrutatu, formekin jolatu, abstraktoekin eta figuratiboekin... Galzen ez dizun zaldeasuna da, zure bitzitzen zait bat bezala, zabalteko aukera ematen dizula uste dut. Bultzada ere ematen diti horrelako proiektuekin aurrera jarraitzeko eta lanean segitzeko.

Kolore biziko lanak dira zureak.

JUAN ELADIO ▶ PINTOREA

«Ikusi nahi ez duena erakutsi nahi diot munduari»

Juan Eladiok (Ekuador, 1968), mota guztietako koadroak marrazten ditu, hala ere, gizartearen baturerik dauden pertsonak dira nagusi bere obretan.

Zure lanak lehen aldiz daude ikusgai Ibarren, etse? Bai, lehenengo aldia da horrelako esperientzia batean parte hartzen dudana eta egia esan oso gustura sentitu naiz esperientzia mesedegarria izan baita. Normalean tabernetan jarren ditut nire lanak baina horrelako erakusketan egiten dudun lehenengo aldia da eta oso pozik nago.

Erretiratutik dira nagusi zure lanetan. Bai hala da, erretiratutik marraztea dut gustukoan, batez ere, gizardeen baturerik dauden pertsonak marrazten ditut. Enkarigu bitartez ere egiten ditut paisaiak...

Zer adierazi nahi duzu egindako koadroen bitartez? Nire lanetan denboraren joaneko adierazi nahi izaten dit munduan gertatzen diren gauzen ikuspegiak. Nik uste dut pertsona bakoitzak bere bizitza bitzitzen duela eta ez diola inururukoei begiratzen, laguntza behar dutenean edota adituak izan nahi dutenean. Nire ustez emakumeek gobernu hartu beharko lukete, era horretan gauzak hobeto joango balirateke, emakumezkoek sentiberagoak baita.

Ez da helburu makala. Nire lan pertsonalik egiten saiatzen naiz eta horretan jarraituko dut. Nire helburua nagusia bizitza munduari erakutsi ikusi nahi ez duena, lehen esan bezala jendeak bere buruari begiratzen baitu inururukoei arduratu gabek.



Marce Tena, HTZA



Txiki Orbegozo, HTZA

TXIKI ORBEGOZO ▶ PINTOREA

«Oso ondo ezagutzen ditut marrazten ditudan pertsonaiak»

Pertsonen eta kulturen komunikazioari eta hartu-emanari areta berezia eskaintzen dio Txiki Orbegozok (Tolosa, 1962).

Zer moduzko emaitza iruditzen zaitu erakusketarenean? Senditasunezko ekintza askok ezkutuko interesa izaten dute baina Ibarra Kultur Trukeak kulturarekiko benetako apoteoa egin duela uste dut.

Zein lan jarri duzu ikusgai? Nik, normalean, erakusketak non eta zerlarako den hartzen dut kontutan eta horren arabera marrazten dit, tokia eta gaia oso garrantzitsuak dira.

Marrazten dituzun lanen artean sortzen den harremanari garrantzia ematen diozu. Jendea marraztea da niri gehien gustatzen zaidana. Arzak batietik abiatzen naizen arren, pertsonaiak asmatzen ditut, horrela bilatzen dut inspirazioa. Izakera edota keinurak asmatuz josten naiz. Sokiak aurpegia ikusten den arren, nik

badaikit zer sentitzen duen, zein iragan izan duen, etab.

Oso harreman estua duzu berez, zure lanekin. Bai, bai. Oso ondo ezagutzen ditut marrazten ditudan pertsonaiak, denbora asko pasaten dut beraien begira.

Zer marrazten duzu? Kultura ezberdinetako jendea marrazten dit, bidaietako argazkietatik eta abar. Pertsona bat ikusten dudanean, badakit nolako bizitza duen eta sententza horiek behar izaten saiatzen naiz.

Zein da zure obren ideia? Pertsonak marrazten dituzenez, pertsonaia horien bitartez komunikatzen saiatzen naiz. Errealak bailiran sentimenduen adierazlea, bain zuzen. Nik hori sentitzen dut marraztean eta ikusleek ere hori lortzea nahiko nuke, neurri bati batean bada ere. Nik neretzako marrazten dit baina jendeak mezu jasotzen bada, badu edoteka. ◀



Gonzalo Perez, HTZA



Hector Luna, HTZA

HECTOR LUNA ▶ PINTOREA

«Kulturalki ezberdinak gara baina berdinak izaten jarraitzen dugu»

Hector Lunak (Ekuador, 1968) labor-pinturaren da trebea eta bere lanak mundu osoan zehar aurkitu daitezke. 7 urte diaramatza Ibarra bitzitzen.

Zer moduz sentitzen zara Euskel Herrian? Oso gustura nago eta eskeru beharren sentitzen naiz. Esker ematen duen herri solidarioa dela uste dut eta gustuko dinezue forma kultural berriak ezagutzea.

Horrelako ekitaldiak garrantzitsuak direla esan izan duzu. Oso atsegina da horrelako ekitaldi batean parte hartu eta pintore berriak ezagutu plasztika mundauren barnean ezagutzeko, izan ere, kultur ezberdinen artean desinformazio eta tabu handiak daude.

Kultur Trukeko erakusketak zein ezaguri ditu?

Ukitu berezi bat du erakusketak honek. Ekuadorko eta Saharako kulturarekiko zaituko bat erakusten diak eta berez, aukera ematen da kultura hauein inguruko ezagutza zabaltzeko. Era horretan, zu zarena eta sentitzen duzunaren pertzepzio zabalagoa jasotzen du.

Zerk eraman zaitu zure lanak egitera? Niri labor-pintura gustatu izan zait betidanik. Horregatik, hori abiatzen naiz maiztasuna, bakardades edota ekaritasuna bezalako gauek egungo guaiak lantzeko.

Ez adierazi nahi duzuna da... Lehen aipatu ditudan gaiein inguruan ereduak eskaintzen ditut, jendeak ikus dezan nola antzematen ditudan nik gai horiek. Azkenean, kulturalki ezberdinak gara baina berdinak izaten jarraitzen dugu. ◀

ANOETA ▶ AZPIEGITURAK

Udalak telebistako seinale errepikagailu digitala jarriko du

Egun dagoen errepikagailu analogikoak «ez duelako ondo funtzionatzen», aparailu berria jartzeko erabakia hartu du



Hilerraren ondoan dago egun telebistako seinalea ematen duen errepikagailu analogikoa. I. GARCIA

ERREDAKZIOA

Anoetako inguruneari seinalea eskaintzen dion errepikagailua egoera txarrean aurkitzen da. Hori dela-eta kanpoko seinalea jaso eta hedatzeko orduan gabezia asko pairatzen ditu. Azken denboraldian, udalerriko hainbat telebistetan irudiak jasotzerakoan gertatzen diren arazoak direla-eta ugariak izan dira udaletxean jasotako kekak. Udalak adierazi duenez, «arazoari irtenbidea» eman nahi dio eta «horretarako hartzaile-igorle ekipoa ordezkatzeko beharrezkoa suertatzen da, gaur egun dagoenaren konponketa bideragarria gertatzen ez baita». Horrela, errepikagailu digitala jartzeko erabakia hartu du Udalak.

Telebista digitala finkatzea ahalbideratzen duen digital

uhinen arabera igorketa eredu merkatuan ezartzen ari da. «Horretarako seinaleak digitalki, eta ez analogikoki orain arte gertatzen zen bezala, jaso eta igortzen dituen errepikagailua instalatzea ezinbestekoa da», zehaztu dute Udaletik. Denboraren poderioz igorketa analogikoa desagertzen joango da eta 2010 urterako Europa guztian baztertua izango da.

Udalak, 2010 urtean izango den itzalaldi analogikoari begira, errepikagailu analogikoa baztertu eta telebista digitala eskuratzea ahalbideratzen duen errepikagailua ezartzea erabaki du. «Teknologia digitala behin betiko ezartzea hobetsi da, berehalako abantailak eskuratzeko. Sistema honen bidez Anoeta etorkizuneko telebistak ekarriko dituen abantailak onura ateratzeko bidean jartzen da», dio Udalak.

Dekodifikatzailea

Telebista digitala herrian noiz ezarriko duten laster azalduko du Udalak. Une horretatik aurrera telebista ikusi ahal izateko aparailuak dekodifikatzaile txertatua izatea edo seinale dekodifikatzaile bat eskuratzeko beharrezkoa izango da. Beraz, egun gutxitan uhin digi-

talak dekodifikatzen dituen aparailua etxean izatea ezinbestekoa izango da telebista kate guztiak ikusi ahal izateko.

Europa mailan telebista digitala martxan da. Dena dela etxebizitza askotan, oraindik telebista analogikoak daude, aparatu hauei irudi eta soinu digitala hartzea ezinezkoa gertatzen zaie. Hala ere, seinale berria jaso eta honek dakartzen etekiniaz baliatzen telebista analogikoak aldatzea ez da derrigorrezkoa izango. Nahikoa izango da sistema berri bat, hau da, dekodifikatzailea eskuratzea. Bere prezioa 60 euro ingurukoa da, eta seinale digitala analogikoan bihurtzen du. Antena komunitarioa duten eraikinetan aldatzeko egitea beharrezkoa da seinalearen amplifikadore aparailuan.

Sintonizatzaile honek abantaila gehiago ditu. Sistema digitala eskaintzen duen irudi hobetoagoz gain, kodifikatzailea Home Cinema batera konektatzen bada, filma bat bost bozgorailutatik entzun ahal izango da. Orokorrean telebista tresna berriek dekodifikatzaile hauek txertatuak izaten dituzte. Dena dela telebista berria erostera ere beharrezkoa honetaz galdetzea komenigarria da.

ANOETA ▶ GIZARTEA

Gaztetxean lapurreta egiteagatik atxilotu dute

Ertzaintzak furgoneta bateko gidaria atzeman zuen igande gauean Tolosan

ERREDAKZIOA

Anoetako Gaztetxean eta ondoko lokal batean lapurreta egitea egotzita, igandetik astelehenera bitarteko gauean lagun bat atxilotu zuen Ertzaintzak Tolosan. Dirudienez, susmagarria iruditu zitzaion furgoneta bat Ertzaintzari eta ibilgailua gelditu eta gidaria atxilotu zuen.

Anoetako Gazte Asanblada batek egunkari honi adie-

razitakoaren arabera, 300 euro inguru lapurtu zituzten Gaztetxetik eta berreskuratu ahal izango dituzte aste honen amaieran Tolosako epaitegian. Gertaera hauengatik Gazte Asanbladak salaketa jarri du. Bestalde, Gazte Asanbladatik azaldu dutenez, oraindik ez dago jakiterik atxilotutakoak aurreko lapurketarekin zerikusia zuen ala ez. Atzo bilera egitekoak ziren Gazte Asanbladako kideak.

IBARRA ▶ KULTURA



Lur Kortaren ipuinekin haurrek irudimenarekin bidaiatu dute

Erredakzioa ▶ Ibarako Kultur Truke Hamabostaldiak ez du etnik, ez oraingoz behintzat. Horren seinale izan da atzokoan Lur Kortak Kultur Etxean eskainitako *Munduko ipuinen kontaketa* saioa. Hogeita hamar haur inguru bildu ziren Kultur Etxeko aretoan, ipuinen bitartez fantasiazko bidaia egiteko. Liluratuta bazuk, pozez zorrotzen beste bazuk, adi-adi entzun zituzten guztiek ere Lur Kortaren lagunaren abenturak. I. GARCIA

ANOETA ▶

Dantza-sokarako izen-ematea zabalik Itzulín

Azkeneko urteetan bezala, aurten ere Anoetarrok Auzolanean plataformako Kultura taldeak dantza-soka antolatzeko asmoa dauka. 2007ko kalderero egunean egingo da. Parte hartu nahi duenak izena eman behar du Itzuli tabernan dagoen zerrendan, abenduaren 2a baino lehen. Entseguak abenduan hasiko dira.

ANOETA ▶

Maite Franko ipuin kontalaria liburutegian

Maite Franko ipuin kontalaria saioa emango du gaur, udal liburutegian. Haur Hezkuntzako bigarren eta hirugarren mailako haurrei zuzendutako saioa izango da, hau da, 4 eta 5 urte dituztenentzat. 18:00etan hasiko da ipuin kontaketa eta antolatzailleek puntualitate eskatzen diete bertara joateko asmoa dutenei.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Autoa. Ford Escort 1800. 16V. 9 urte. Egoera ezinhobean. Deitu zenbaki honetara: 687 22 57 07.
Pago egurra. Sutarako pago egurra salgai. Etxera entregatzen da. 615 75 57 62.

LEITZA ▶

Drogaren inguruko hitzaldiak Gaztetxean

N. GARZIA

Drogaren munduaren inguruan hitz egiteko hiru hitzaldi antolatu dituzte herrian. Lehenengoa ostiralean izan zen, Gaztetxean, eta Askagintzako bi ordezkari etorri ziren bertara hurbildu ziren gazteekin hitz egiteko. Ostiralekoa ez zen ohiko hitzaldia izan, bere helburua elkarrizketa baitzen, aho bakarreko hitzaldia baino.

Horretarako hizlariak hainbat galdera egin zituen, gazteek erantzun zituzten. Hartu-eman honetan oinarrituta, hiru galderen inguruan antolatu zuen elkarrizketa: Zertaz hitz egiten ari gara, zeintzuk dira arazoak eta zeintzu alternatibak.

Abenduan drogen inguruko beste bi hitzaldi izanen dira, 1ean eta 16an.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarralde.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irua.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdi: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garrarioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitza autobus.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ lurramendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

LEITZA ▶ PILOTA

Barriola, sasoiean dagoela erakutsi ondoren, Lau t'erdiko finalean da berriro

Lau t'erdiko Txapelketan Olaizolaren aurka 5 aldiz galdu ondoren, estatistika guztiak hautsi eta abenduaren 10ean jokatuko du finala leitzarrek



Abel Barriolak arantza kendu zuen igandeko partidari, Olaizolaren aurkakoan. N. LIZARTZA

NAIARA GARZIA

Estatistikak eta zenbakiak beti arrazoirik ez dutela izaten argi erakutsi zuen herenegun Beotibarren jokatutako partidak: bost aldiz Olaizola II.aren aurka galdu arren irabaztea posible dela, alegia. Atzokoa ez zen Abel Barriolaren Lau t'erdiko Txapelketaren garaipen hutsa izan, bere bi urte ilunei amaiera jarri baitzuen Abel Barriolak. Olaizola II.ak irabazle baten pentsaera duela esan zigun larunbatean, eta estatistikei kasu egiteak zentzurik ez zuela. Partida eta gero, iragana atzean utzi du leitzarrek. «Nik uste Abelek barruan zuen arantza atera zuela, eta partida hau eta gero, berriro pilotari sentitu dela eta hau oso garrantzitsua da», azaldu du Joxe Antonio Olaetxeak, botileroak.

Irabaztera atera zen Barriola, seguru, beharbada Olaizola II.aren aurrean zalantzak dituenak galdu egiten duela diotela. Hau bere Lau t'erdiko hiru txapelekin iritsi zen partidara; Barriola, berriz, azken bi urteetako garai ilunaren itzala-

rekin eta, nola ez, jendearen beroarekin. Apustuak hasieran goiztarraren alde egin arren, honek ez zuen beti bezain ongi jokatu, eta Barriolak sekulako ikuskizuna eskaini zuen, joku ona, errematea, sufrimendu eta emozioz beteriko partida eskaini. «Pentsatzen genuen bezalakoak izan zen neurketa, gogorra eta erritmo handikoa. Abelek asko jokatu zuen, abiadura handia eman zion pilotari eta tantoak ongi amaitu zituen. Olaizola II.a, be-

rriz, urduriago zegoela zirudien, konfidantza gutxiagorekin edo».

Esanahien garaipena

Lan fisikoaz gain, egoera psikologikoa hagitz garrantzitsua da pilotan, Barriolak berak esan zuen bezala, «gorputza bero eta burua hotz izatea». Eta horrexegatik izan zen berezia emaitza, esanahiez beteta. Lau t'erdiko distantzian dagoen pilotaririk onenaren aurka irabazi zuela begi-bistakoa da, baina honen atzean beste garaipen bat bazegoen: eskuko arazoak direla-eta izandako ebakuntzaren ondorioz pasatako bi urte beltz horien amaiera.

Material pisutxua eta geldoa aukeratu zuen leitzarrek partida honetarako, eta goizuetarrek bere estrategiari antza hartu arren, ez zuen erantzun egokirik ematen asmatu. Aireko jokuak, bere dohain nagusienetarikoa, ahaztu zitzaion partidaren zati handi batean, eta sakean ere falta bat egin zuen. Azkeneko zatian estrategiaz al-

datu eta aireko jokuari ekin zion, berdintasuna lortuz, eta puntu honetan, partidaren barruan beste partida bat hasi zen, norgehiagoka sutua.

Partida bizia

Partida hasieran Barriola pixkanaka tantoak egiten hasi bazen ere, Olaizolak aurrea hartu zion, pare bat tantoetako, partida guztian mantenduko zuen bakarra. Hortik aurrera leitzarrek aurrera egin zuen, bien arteko distantzia areagotuz. 15 eta 11 zihoztenez Olaizolak estrategia aldatu eta aireko jokuari ekin zion. 18ra iritsi zen horrela, hil ala biziko partidaren barruko partidara. 20na zihoztela izan zen azkeneko berdinketa eta azkenean goiztarra irabaztea merezi ez zuen partida bat irabaztear egon bazen ere, leitzarrek beste bi tanto egin zituen.

Partida garrantzitsua zen atzokoa. Material hautaketara 300 bat pertsona hurbildu ziren, eta a datu hau ikusita iragandean Beotibarko frontoia erabat beteta egongo zela argi zegoen.

Finala

Abenduaren 10ean jokatuko dute finala, eta aspaldiko partez, Asegareko pilotaririk ez da izan bertan. 2003. urtean Nagore eta Titinen arteko finaletik ez zen horrelakorik gertatzen. Oraindik non jokatuko den erabaki gabe dago, baina ziurrenik Gasteizko frontoian izanen da. Abel Barriolak Lau t'erdiko bere laugarren finala jokatuko du aurtengo txapelketako errebelazioaren aurka: Martinez de Irujo. «Finala ere gogorra izanen da. Esperantza osoarekin goaz, Abelek ideiak argi dauzka eta pilotan maila polita erakutsi du».

PARTIDA ▶

DATUAK

Iraupena. 65 minutu, benetan jokatutako minutuak, 17.

Sakeak. Barriolak 5; Olaizola II.ak 5 eta falta bat.

Pilotakadak. 352.

Tantoak jokuan. Barriolak 9 eta Olaizola II.ak 6.

Markagailua. 2-0,2-1,3-1,3-3,3-5,5-5,10-5,10-8,11-8,11-9,14-9,14-10,15-10,15-13,18-13,18-18,19-18,19-19,20-19,20-20,22-20.

	<p>■ Aholkularitza juridikoa: zibil, penal eta administratiboa</p>
	<p>■ Higiezinaren zerbitzuak</p>
<p>Andia kalea, 1 • 4C • 20400 TOLOSA Tel.: 943 11 82 82</p>	

AGENDA ▶

24. NAZIOARTEKO TXOTXONGILO JAIALDIA

Tolosa. Gaurko egitaraua: 12:00etan, 15:00etan eta 18:30ean, Ekuadorko La Espada de Madera taldearen *La maleta de la abuela Enriqueta* antzelana, Leidor aretoan. 11:00etan, 15:00etan eta 18:00etan, Valentziako Los Duendes taldearen *El patito feo* antzezlana, Casinon. 10:30ean, 15:00etan eta 17:00etan, Kolonbiako Hilos Magicos taldearen *De sombras y sombrillas* lana, Kultur Etxean. Eta, 11:00etan eta 15:00etan, Bihar Tx. talde euskaldunaren *Pinotxo* antzezlana izango da, Ferialekuan.

DEIALDIAK

Anoeta. Maite Franko ipuin kontalariaren saioa, Udal liburutegian. 18:00. HH2 eta HH3ko ikasleentzat (4-5 urte) zuzendua. Puntualitatea eskatzen da.
Anoeta. Anoetako Mendi Astearen baitan, Josune Bereziartu eskalatzailak diaparoma emango du *Bimbaluna 9A/+ Josune hatz muturren gainean* izenekoa. Udalebeko bideo gelan, 19:00etatik aurrera.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Matxin Labaien margolari tolosarraren oleozko pinturak ikusgai daude, Lanbroa tabernan, abenduaren 2ra bitarte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Areso. Goizueta, F. Loidi etxea. 112.
Tolosa. Santa Maria. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZAREN ERREPASOA, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-20:00. Tolosaldeko ahotsa (errepikapena).
20:00-21:00. Goiko eskolatik betti.
21:00-22:00. Izarrak eta ilargia.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Musika eta dantza

TOLOSA ▶ Jende asko bildu zen Leidorren igandean herriko bost musika taldek Santa Zeziliaren omenez eskaini zuten kontzertu berezian



Giro arte dultzainari taldeak dantzariak sartu zituen igandeko bere emanaldian, Leidorren. NEREA LIZARTZA



Isidro Larrañaga akordeoi orkestra eta herriko beste lau talde aritu ziren kontzertuan. N. LIZARTZA

ERREDAKZIOA

Musika eta dantza izan ziren protagonistak Tolosako musika taldeek igandean Leidor aretoan Santa Zeziliaren omenez eskaini zuten kontzertuan.

Urtero bezala, Tolosako Musika Bandak antolatu zuen musikariaren zaindariaren omenezko ekitaldia eta iazko etenaldiaren ondoren, Leidor areto berritura itzuli zen emanaldia. Musika Bandaren gonbiteari herriko beste lau musika taldeek erantzun zioten eta horietako bik dantzariak sartu zituzten bere saioetan: Giro Arte dultzainari taldeak eta Isidro Larrañaga akordeoi orkestrak. Hala, musika eta dantza uztartu zituzten bere emanaldietan, ikus-entzuleen gozamenetarako.

Maiatz akordeoi orkestrak, Udal Txistulari Bandak eta Tolosako Musika Bandak estilo desberdinetako bina doinu eskaini zituzten.

Nahiz eta eguraldia barrurako baino kanporako egokiagoa izan, entzulegoak ondo erantzun zion herriko musika taldearen deia eta Leidor aretoko eserleku eroso gehienak bete zuten.


AGURRAK ▶




URTE ASKOAN
Maialen. Gure panpina polittak, gaur bi urte. zorionak eta ondo pasa. Muxu handi bat, asko maite zaituen zure familiak.



ZORIONAK
 Gaur 2 urte elkarri «bai, nahi det!» esan zenietola. Zorionak eta, nola ez, eskerrik asko zuen bi *umeen* partetik.



URTE ASKOAN
Saioa Zabala (Tolosa). Gaur urtebete, muxu handi bat zure ahizpa Ainara eta gurasoen partetik.



URTE ASKOAN
Idoia Beain Arizaga (Alegia). Muxu handi bat seme-alaba, senarra, guraso eta familia guztiazen partetik.

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza
 agurren tarte